

IRIS 22

Yurre Ugarte
Julen Ribas

2023
ABENDUA

Kateaturiko hondamendi multzoen ondotik, xxii. mendean, *Numun* gizartea sortu dute kokaleku ezezaguneko ir-
lan, landare luminiszenteen argitan. Iraganetik kutsadura, plastikoak eta liburu batzuk besterik ez zaie iritsi. Greta Kik ezkutatu egiten du eguzki haziak dituela malkoetan, *sunin-
sider* deitzen duten horietako bat dela. Baina Max Serekin eraiki du loetxea, eta ezinezkoa zaio sekretua gordetzen ja-
rraitzea. Max Sek hura bezalako guztiekin esperimenduak egin nahiko ditu, eta Greta beldur da, atzera hondamendi-
ra itzuliko ote den beldur. Batzuk arbasoen ondare natural eta kulturala berreskuratzen eta gordetzen saiatzen diren bitartean, beste batzuk bizitza luzatzeko asmakizunean da-
biltza, post-hondamendiko salbatzaile asmoz; eta, tartean, Iris umea, haur jolasetan. K.o. xiv. mendean Dante Alighie-
rik idatzitako *Jainko antzerkiaren* pasarteek protagonista interpelatzen duten bezala, irakurlea ere ez da epel gera-
tuko hondamendiak utzitako arrastoei segika.

KOMIKIA

ISBN: **978-84-19319-81-4**
ORRIALDEAK: **108**
FORMATUA: **21 x 28 mm**
PREZIOA: **22,00 €**

- Komiki arrakastatsuen egileek beren trebeziak uztartuz sortu dute: Yurre Ugarte (*Joana Maiz*) eta Julen Ribas (*Santa Familia* eta *Azken garaipena*, biak ala biak Euskadi sariaren irabazleak Haur eta Gazte Literatura kategorian).
- Egun antzeman daitezkeen krisiak eta arrakalak hondamendi bihurtu eta XXII. mendean kokatzen dute istorioa, desolazioaren osteko gizarte batean.
- Auzi etikoak trumilka agertzen dira istorioaren azalari hazka egitearekin bakarrik, eta ilustrazio bizi eta errealistak irudimenaren osagarri dira.



JULEN RIBAS

Arrasate, 1981.


Txikitatik erakutsi zuen marrazketa eta arte ederretarako dohaina. Batxilergo zientifiko-teknikoa egin zuen eta 1999an Bartzelonara joan zen Arte grafikoak ikastera. Garai hartan murgildu zen komikiaren munduan; aurretik *Tintin* eta *Asterix* eta *Obelix*, beste erreferentziarik ez baitzuen. Ikasketak bukatzean, sorterrira itzuli eta *freelance* jarri zen, eta ordutik ilustratzaile lanetan aritu da, gehienbat Euskal Herriko eta Frantziako Estatuko argitaratzaileentzat. Bere lan ugarien artean, komiki haueko ilustrazio lana aipa daiteke: Eider Rodriguezen *Santa Familia* eta Iban Zalduaren *Azken garaipena*, biak ala biak Euskadi Sariaren irabazleak Haur eta Gazte Literatura kategorian.



YURRE UGARTE

Tolosa, 1965.

EHUn kazetaritzan lizentziatu eta gero, buruz behera egin zuen jauzi fikziora. Ordutik, hamaika telesailen sortzaile, gidolari edota editore izan da, eta narrazio bildumak, marrazki bizidunetako filmak, antzezlanak eta haur-gazteentzako liburuak idatzi ditu. *Joana Maiz* nobela grafikoa eta *Katu Hegoduna* komikia argitaratu zituen, Joseba Larratxeren marrazkiekin. *Lilurabera* narrazio bilduma da argitaratu duen azken literatur lana.



 txalaparta

Tfno. 948 703 934 | info@txalaparta.eus
www.txalaparta.eus